



# BIND 4.0 GOVTECH

STARTUPENTZAKO PROGRAMAN  
PARTE HARTZEKO OINARRIAK

BIND  
GOVTECH 4.0

## 1. Ekimenaren helburuak

BIND 4.0 programaren esparruan, lan-ildo bat eratu da **startupen eta Eusko Jaurlaritzako sozietate publikoen arteko lankidetzaren sustatzeko**. Ekimen pilotu horrek, **BIND 4.0 Govtech-ek**, aukeren leihorik berri bat zabaltzea nahi du parte hartzen duten eragile guztientzat, prozesu eta zerbitzuen berrikuntza eta eraldaketa sustatuta.

Sozietate publikoek lan-prozesu batean hartuko dute parte, eta ikerketari eta bideratzeari aplikatutako diseinuen metodologiak erabiliko dituzte. Ondorioz, argitaratu daitekeen erronka teknologiko bat lortuko dute, programako startupean helaraziko zaiena, beren zereginak betetzean aurkitzen dituzten arazoak konpontzeko dituzten kontzeptu-probak egitea planteatu dezaten.

## 2. Zehaztapenak eta baldintzak onartzea

Baldintza hauen xedea da BIND 4.0 GOVTECH ekimenean **parte hartzeko arauak** ezartzea. Ekimen horren deialdian parte hartzeak oinarriak onartzea dakar, salbuespen eta baldintzarik gabe, bai eta SPRIk edo BIND 4.0 programaren Kudeaketa Taldeak har dezakeen beste edozein erabaki ere.

## 3. Zehaztapenak eta definizioak:

Ekimen horren ondorioetarako, honako definizio hauek aplikatzen dira:

- **"SPRI"**: SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA, zuzenbide pribatuko erakunde publikoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailera atxikia.
- **BIND 4.0 taldea**: Programaren Kudeaketa Taldea. Spri Taldeko eta Eusko Jaurlaritzako teknikariek eta BICek osatzen dute.
- **Koordinazio eta Ebaluazio Batzordea**: SPRIko zein parte hartzen duten euskal erakunde publikoetako kideek osatutako lantaldea. Ekimena antolatzeaz,

parte hartzen duten eragileak koordinatzeaz eta jardueren jarraipena egiteaz arduratuko da.

- **Startup:** Sortu berri den enpresa, xede-merkatu baterako produktu edo zerbitzu berritzaileak garatuz negozio-eredu eskalagarria lortu nahi duena.
- **Erakunde publikoa:** administrazio publikoa jabe duen (zati batean edo osorik) erakundea edo korporazioa.
- **Workshop-a:** parte hartzeko lan-tailerra edo -saioa, zeinetan ekimenean parte hartzen duten erakunde publikoek emaitza bateratuak lortzeko lankidetzak ekintzak garatzen dituzten.
- **Pitching-ak:** erakunde publikoen eta startupen arteko saio bateratuak, parte-hartzaileek beren proposamenak aurkezteko eta denbora eta espazio mugatu batean ideia edo negozio bat azaltzeko.

#### 4. Startup hautagaien ezaugarriak

BIND 4.0 GOVTECH honako profil hau duten startupek dago zuzendua nagusiki:

- Sektore publikoan aplikatutako teknologia berritzaile berriak garatzen dituzten startupak, haien garapen teknologikoa osatu dutenak, eta bere zerbitzuaren/produktuaren konfigurazioa amaitzeko egoeran daudenak, hau da, ikusi, testatu, probatu eta, are gehiago, merkatuan eskuragarri dagoen produktu edo zerbitzua duten startupak.
- 8 urte baino gutxiagoko startupak, zerbitzu publikoen hornidura hobetzeko teknologia berriak erabiltzea proposatzen dutenak.
- Parte hartzen duten erakunde publikoek proposatutako erronketan aplikazioa duten startupak.

#### 5. Parte hartzen duten startupen konpromisoa

Parte hartzen duten startupek honako konpromiso hauek hartuko dituzte:

- Ekimenaren zehaztapenak eta baldintzak onartu eta betetzea.
- Ekimenean proposatzen diren dinamiketara bertaratu eta aktiboki parte hartzea, eta zehaztutako lan eta zereginak betetzea.

- Erakunde publikoaren eta startupen artean lankidetzakontratua egin ondoren proiektua garatzeko beharrezkoa den prestasuna izatea.

## 6. Konfidentzialtasun-politika

BIND 4.0 GOVTECH ekimenean aurkezten diren startupen hautagaitzen edukia eta erakunde publikoek esku-hartzeko faseetako eta informazioa emateko faseetako edukia konfidentziala eta mugatua izango da, eta hala tratatuko dute ekimenaren sustatzaileek.

## 7. Datu pertsonalen babesa

Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean (aurrerantzean, DBEO) eta datu pertsonalen babesaren arloan aplika daitezkeen gainerako araudietan ezarritakoarekin bat, jakinarazten da emandako datuak eskatzen den laguntzari buruzko espedientea kudeatzeko tratatuko direla, eta SPRI Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia gisa sortu zeneko estatutuetan ezarritako xedeak betetzeko funtzio publikoa izango dela datu pertsonalak tratatzeko oinarri juridikoa.

Informazio hori jakinarazi ahalko zaie enpresa laguntzaileei, arlo horretan eskumena duten administrazio publikoei eta SPRI Taldeko enpresei (ikus <http://www.spri.eus/es/quienessomos/sociedades-del-grupo-spri>)

Interesdun guztiek baliatu ahal izango dituzte datuak babesteko araudiak ematen dizkien eskubideak SPRIren aurrean. Horretarako, idatzi bat igorri beharko dute honako helbide elektroniko honetara: [lopd@spri.eus](mailto:lopd@spri.eus) Era berean, erakundeko datuak Babesteko ordezkariarekin jarri ahal izango dira harremanetan helbide honetan: [dpd@spri.eus](mailto:dpd@spri.eus).

SPRIko Datuen Babesari buruzko informazio gehigarria eta xehatua kontsultatzeko, [www.spri.eus/privacidad](http://www.spri.eus/privacidad) webguneko Pribatutasun Politikara jo dezakete.



Jakinarazten da Datuak Babesteko Euskal Bulegoa dela kontrol-agintaritza, datuen tutoretza eskatu behar izanez gero ([<http://www.avpd.euskadi.eus>]) [www.avpd.euskadi.eus](http://www.avpd.euskadi.eus)).

## 8. Edukiak

Ekimenean parte hartzen duten startup guztiek ziurtatu egingo dute borondatez aurkezten dituzten lanek eta edukiek (laburpenak edo aurkezpenak barne) ez dutela urratzen hirugarrenen inolako eskubiderik eta ekimen honetan parte hartzeko beharrezkoak diren baimen guztiak dituztela. Ez dira iraingarriak eta umilgarriak izango; ez dute indarkeria eta arrazismoa bultzatuko; ez dituzte urratuko indarrean dagoen araudiak aitortzen dituen oinarritzko eskubideak edo askatasun publikoak (haurrak eta gazteak babesteko legeak barne); ez dute eragingo pertsonen intimitate pertsonalean edo familiarrean sartzerik; ez dute urratuko hirugarren baten komunikazioen ohorerako edo sekreturako eskubidea; edo ez dira edozein araudiren aurkakoak izango.

Halaber, aurkezten diren proiektuek hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista bermatu behar dute.

Gainera, startup parte-hartzaileak erakunde sustatzaileei baimena ematen die bere izena eta irudia ekimenari lotutako publizitate-materialean erabiltzeko, edozein bitarteko edo formatutan, horregatik inolako konpentsazio ekonomikorik jaso gabe.

## 9. Lanerako plana, kronograma eta proiektuaren une garrantzitsuak

### Alderdi operazionalak

- Ekimenaren iraupena **6 hilabetekoa izango da**, SPRIren proiektu-taldearen laguntzari dagokionez.

- Hala ere, **erakunde publikoek eta startupek talde sustatzaileari urtebeteko epean programaren esparruak garatzen diren proiektuen aurrerapenei buruzko informazioa emateko konpromisoa hartzen dute.**
- Ekimena nagusiki **gaztelaniaz egingo da**, baina sortzen diren materialak euskaraz edo ingeleraz egon daitezke.

### Parte-hartzearen fase eta une garrantzitsuak:

- **Urtarrilak 9:** BIND 4.0 Govtech ekimenaren erronkak ofizialki argitaratzea.
- **Otsailak 3:** Startup hautagaitzak jasotzeko epea bukatzea.
- **Otsailak 17:** Pitching ekitaldirako hautatu diren startupek jakinaraztea.
- **Martxoak 14 eta/edo 15:** Pitching saioak online (merkataritza-aurkezpenak; 10 minutu startup bakoitzeko)
- **Martxoak 29:** Startupek jakinaraztea merkataritza-akordioa hasteko

*Adierazitako datak orientagarriak dira eta alda daitezke.*

*BIND 4.0 taldeak modu proaktiboan jakinaraziko ditu behin betiko epeak eta datak.*

## 10. Startupak hautatzeko prozesua eta proiektua garatzeko akordioa

BIND 4.0ren Koordinazio eta Ebaluazio Batzordeak BIND 4.0 ekimenaren webgunean dagoen aplikazioan jasotzen dituen hautagaitza guztiak ebaluatuko ditu honako irizpide hauen arabera eta startupen eta argitaratutako erronketarako proposatutako konponbideen egokitzapena ebaluatuta:

Ebaluazio-irizpideak
<b>1) Balio-proposamena (% 40)</b>
Proposatutako konponbidearen berrikuntza-maila.
Planteatutako proposamenaren heldutasun-maila (teknologia/produktua edo zerbitzuaren merkatu-fasea).

Proposatutako konponbidearen inpaktua erakunde publikoan eta merkatuan.
Proposatutako konponbidearen abantailak merkatuko beste aukerekin alderatuta.
<b>2) Talde sustatzailea (% 20)</b>
Talde sustatzailearen prestakuntza-gaitasunak eta gaitasun profesionalak.
Aplikatu den sektorean esperientzia eta haren ezagutza.
<b>3) Planteatutako erronketara egokitzea (% 40)</b>
Planteatutako erronkaren errekerimendu teknikoak betetzea.
Proiektuaren deskribapen-maila (faseak, irismena, helburuak, adibideak).
Antzeko beharrak dituzten erakunde publikoei proposatutako konponbidearen eskalatzeko gaitasuna.

**Ebaluatu eta gero, hainbat startup hautatuko dira, eta pitching saio bakarrera edo batzuetara gonbidatuko ditugu. Pitch saio** horietan, startupek planteatutako erronkei aplikatzeko konponbideak aurkeztuko dituzte, eta hori izango da erakunde publikoak baterako elkarlan-proiektu bati ekiteko startupak hautatzeko abiapuntua.

### **Proiektuak konfiguratzeko eta garatzeko fasea**

BIND 4.0 taldeak erakunde publikoen eta hautatu diren startupen arteko harremana ahalbidetuko du; hala ere, horrek ez du inolako betebeharririk edo erantzukizunik sortuko harreman horren ondoren haien artean ezar daitezkeen merkataritza-harremanei dagokienez.

Planteatutako erronkei erantzuteko gaitasuna duen konponbide teknologikoa aurkitu duten erakunde publikoek, hala badagokio, startuparekin edo startupekin kontratu bat sinatuko dute zuzenean, eta lortutako akordioen alderdi nagusiak jakinaraziko dituzte. Hala ere, proiektu horietan SPRIK ez du inolako paperik edo parte-hartzerik izango.

Baterako proiektuaren irismena, helburuak, iraupena eta hura garatzeko baldintza ekonomikoak bi aldeek definitu eta adostuko dituzte askatasun osoz, kontratazio

publikoaren arloan indarrean dauden arauen arabera, eta SPRIren parte-hartzerik gabe.

Kontratuaren edukiak sinatzaileak behartuko ditu; hau da, erakundea publikoa eta startupa. Izan ere, akordio pribatua da, eta horien arteko eskubide eta betebeharrak ezartzen ditu.

Hortaz, aldeek (erakunde publikoa eta startupa) bere gain hartutako betebeharrak betetzea betebehar horren ardura duen aldearen erantzukizuna izango da. Zehazki, aldeek (erakunde publikoa eta startupa) adostutako prezioa erakunde publiko parte-hartzaileak ordainduko du, eta SPRIk ez du inolako erantzukizunik edo betebeharririk izango, ez prezioa ordaintzeari dagokionez, ez eta aldeek (erakunde publikoa eta Startup) hitzartutako betebeharrei dagokienez ere.

## 11. Jakinarazpenak

Ekimenari lotutako jakinarazpen guztiak, erronkak eta startupen deialdia barne, [www.bind40.com](http://www.bind40.com) webgunean argitaratuko dira edo BIND 4.0 taldeak egingo ditu zuzenean.

Parte hartzen duten startupek SPRIren jakinarazpen guztiak posta elektronikoz jasoko dituzte, izena emateko prozesuan identifikatutako arduradunaren helbidean.

## 12. Lege-alderdiak

Parte-hartzaileek uko egiten diote formalki legokiekeen beste edozein foruri eta Bilboko Epaitegi eta Auzitegien mende jartzen dira espresuki, ekimen hau interpretatzean edo gauzatzean zuzenean edo zeharka sor daitekeen edozein eztabaida, desadostasun, arazo edo erreklamazio ebazteko.



### 13. Harremanetarako datuak

Carmen Sánchez: [csanchez@bind40.com](mailto:csanchez@bind40.com)

Alain Gutiérrez: [a.gutierrez@bind40.com](mailto:a.gutierrez@bind40.com)